

**Los bonos turismo y comercio inyectarán 8,7 millones en el mercado para revitalizar los sectores más castigados por la crisis y contribuir a activar el consumo en las familias**

- Los **966.250 bonos** totales (466.250 bonos en hostelería y turismo y 500.000 en comercio) inyectarán en el mercado **8,7 millones de euros** lo que movilizará un mínimo de **26 millones en compras**.
- De todos ellos, el Departamento de Turismo, Comercio y Consumo pondrá en circulación 620.000 bonos con una aportación de **5,7 millones de euros** a lo que se suma la aportación del resto de instituciones.
- Los bonos se denominan **“Euskadi Turismo Bono”** y **“Euskadi Bono Denda”** y se basan en descuentos de 5, 10 o 20 euros en las diferentes modalidades de turismo, hostelería y comercio.

El Consejero de Turismo, Comercio y Consumo, **Javier Hurtado**, ha presentado hoy los bonos coordinados con diputaciones, ayuntamientos y EUDEL, destinados al sector del turismo, la hostelería y el comercio. Le han acompañado en la presentación los representantes de las instituciones: **Gorka Urtaran**, Presidente de EUDEL y Alcalde de Vitoria-Gasteiz; **Cristina González**, Teniente Diputada General de Álava y Diputada Foral de Fomento del Empleo, Comercio y Turismo; **Ainara Basurko**, Diputada Foral de Promoción Económica de la Diputación de Bizkaia; **Imanol Lasa**, Teniente de Diputado General de Gipuzkoa y Diputado Foral de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural; **Maidor Echevarría**, Teniente de Alcalde del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz y Concejala Delegada del Departamento de Promoción Económica, Empleo, Comercio y Turismo; **Cristina Lagé**, Concejala de Turismo Sostenible del Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián; **Xabier Ochandiano**, Concejala de Desarrollo Económico, Comercio y Empleo del Ayuntamiento de Bilbao y **Jose Ángel Corres**, Presidente de las Cámaras de Comercio Vascas-Eusko Ganberak y Presidente de la Cámara de Comercio de Bilbao.

Hoy se ha materializado el acuerdo pionero entre instituciones para una **estrategia conjunta del bono de turismo, hostelería y comercio**. Las órdenes de dichos bonos se publicarán el 5 de octubre, con vigencia el día 6, y darán a los establecimientos un plazo de adhesión de 3 semanas. Tras él, el 28 de octubre, los bonos estarán accesibles a la ciudadanía.

Los bonos buscan **revitalizar a los sectores más castigados por la crisis, así como contribuir a activar el consumo en las familias que también se han visto afectadas**. Una fórmula para dinamizar la actividad del comercio, la restauración, la hostelería y el turismo promoviendo su repercusión en el ámbito local y comarcal.

Estos bonos podrán ser comprados por las personas físicas mayores de 18 años que residan en Euskadi o nos visiten desde otros lugares, en el caso de los de turismo, a partir del 28 de octubre. No se emitirán bonos físicos, sino que se gestionarán en el propio establecimiento en el que se decida gastarlos a través de la plataforma online (activa a partir del día 6).

**Los bonos se basan en el modelo de vale descuento** que, en **comercio**, consta de una única modalidad: descuentos de **10 euros para compras mínimas de 30**. Se podrán adquirir hasta 4 bonos con un descuento máximo de 40 euros en total. Se dirigen a micro y pequeñas empresas del ámbito comercial.

**En turismo y hostelería hay 3 modalidades**. Las modalidades 1 y 2 se dirigen a los **establecimientos y empresas de hostelería, restauración y actividades de interés turístico** y son descuentos de 5 o 10 euros para compras mínimas de 20 o 40 euros respectivamente. En la tercera modalidad el descuento será de 20 euros para compras mínimas de 60 euros en los **establecimientos de alojamiento turístico**. Se podrán adquirir hasta 2 bonos por establecimiento con un límite máximo de 40 euros de descuento total por persona.

**“Euskadi Turismo Bono”** está dirigido a micro, pequeñas y medianas empresas de Euskadi relacionadas con turismo y hostelería, como pueden ser: establecimientos de alojamiento; guías turísticos; empresas turísticas de mediación y organización de servicios turísticos; establecimientos de

restauración y de hostelería; empresas de actividades deportivas en la naturaleza como el turismo activo, y de aventura; empresas de transporte turístico; empresas dedicadas a la divulgación del patrimonio cultural, gastronómico y natural y centros recreativos.

Los **966.250 bonos** totales que se pondrán en circulación (466.250 bonos en hostelería y turismo y 500.000 en comercio) inyectarán en el mercado **8,7 millones de euros**. El Departamento de Turismo, Comercio y Consumo aportará **2 millones para turismo y 3,7 millones para comercio, 5,7 millones de euros en total**. Esto supone **un total de 620.000 bonos, 250.000 bonos descuento en turismo y hostelería y 370.000 en comercio**.

“Ha sido un reto considerable para el Departamento de Turismo, Comercio y Consumo ya que estamos hablando de unas partidas que no estaban contempladas y que suponen en torno a un 18% del presupuesto total de las direcciones de turismo y comercio. Lo que ayer era necesario es hoy imprescindible y es importante que las administraciones podamos dar respuestas eficaces” ha explicado el Consejero.

El Consejero ha querido destacar el consenso interinstitucional indispensable en la situación actual. “Son fundamentales mecanismos como la ampliación de los ERTE, que ayer mismo aprobó el Gobierno de España o como la prórroga del complemento al ERTE a personas trabajadoras con base de cotización igual o inferior a 20.000 euros anuales que acaba de ratificar la Vicelehendakari con la Mesa de Diálogo Social. Son muy buenas noticias porque permitirán extender esta Red de Seguridad como mínimo hasta febrero y darán una certidumbre a muchas empresas y trabajadores para poder enfrentar la crisis. **Y lo es más por haber sido fruto de un consenso entre los agentes sociales en momentos en los que tan importante resulta la colaboración y el esfuerzo conjunto**”.

[www.euskadibonodenda.eus](http://www.euskadibonodenda.eus)

[www.euskaditurismobono.eus](http://www.euskaditurismobono.eus)

**Turismo eta merkataritzako bonuek 8,7 milioi euro txertatuko dituzte merkatuan, krisiak gehien kaltetu dituen sektoreak suspertzeko eta familien kontsumoa sustatzen laguntzeko**

- **966.250 bonuek** (466.250 bonu ostalaritzan eta turismoan, eta 500.000 merkataritzan) **8,7 milioi euro** txertatuko dituzte merkatuan, eta, horren ondorioz, **gutxienez 26 milioi mobilizatuko dira erosketetan.**
- Horietatik guztietatik, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak 620.000 bonu jarriko ditu zirkulazioan, eta **5,7 milioi euroko** ekarpena egingo du. Zenbateko horri gainerako erakundeek ekarpena gehituko zaio.
- Bonuen izenak **“Euskadi Turismo Bonua”** eta **“Euskadi Bonodenda”** dira, eta 5, 10 edo 20 euroko deskontuak eskainiko dituzte turismoaren, ostalaritzaren eta merkataritzaren modalitateetan.

Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburu **Javier Hurtadok** aldundiekin, udalekin eta EUDELekin koordinatuta ateratako eta turismoaren, ostalaritzaren eta merkataritzaren sektoreetara zuzendutako bonuak aurkeztu ditu gaur. Sailburuarekin batera, erakundeetako honako ordezkari hauek izan dira aurkezpenean: **Gorka Urtaran**, EUDELeko elkarteburua eta Gasteizko alkatea; **Cristina González**, Arabako diputatu nagusiordea eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapeneko foru-diputatu; **Ainara Basurko**, Bizkaiko Aldundiko Ekonomia Sustatzeko foru-diputatu; **Imanol Lasa**, Gipuzkoako diputatu nagusiordea eta Ekonomia Sustapen, Turismo eta Landa Inguruneke foru-diputatu; **Maidor Echevarría**, Gasteizko Udaleko alkateordea eta Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkaria; **Cristina Lagé**, Donostiako Udaleko Turismo Jasangarriko zinegotzia; **Xabier Ochandiano**, Bilboko Udaleko Ekonomiaren Garapen, Merkataritza eta Enpleguko zinegotzia; eta **Jose Ángel Corres**, Eusko Ganberetako presidentea eta Bilboko Merkataritza Ganberako presidentea.

Gaur gauzatu egin da erakundeek artean **turismo, ostalaritza eta merkataritzako bonuaren baterako estrategiarako** lortu den eta aitzindaria den akordioa. Bonu horien aginduak urriaren 5ean argitaratuko dira, eta hilaren

6tik aurrera egongo dira indarrean. Haien arabera, establezimenduek 3 asteko epea izango dute atxikitzeko. Epe horren ondoren, urriaren 28an, bonuak eskuragarri egongo dira herritarrentzat.

Bonuen helburua da **krisiak gehien kaltetutako sektoreak suspertzea eta kaltetutako familien kontsumoa sustatzea**. Merkataritzako, jatetxe-arloko, ostalaritzako eta turismoko jarduerak tokiko eta eskualdeko esparruan duen eragina sustatzearen bidez jarduera hori dinamizatzeko formula bat da.

Bonu horiek Euskadin bizi diren edota, turismoko bonuen kasuan, beste leku batzuetatik etorri diren 18 urtetik gorako pertsona fisikoek erosi ahal izango dituzte urriaren 28tik aurrera. Ez da bono fisikorik egongo; aitzitik, gastatu nahi diren establezimenduan bertan kudeatuko dira online plataformaren bitartez (plataforma hilaren 6tik aurrera egongo da abian).

**Bonuak deskontu-balearen eredian oinarrituta daude**. Merkataritzaren kasuan, modalitate bakarra egongo da: **10 euroko deskontuak 30 eurotik gorako erosketetan**. 4 bonu eskuratu ahal izango dira gehienez, eta, beraz, gehieneko deskontua 40 eurokoa izango da guztira. Merkataritzaren esparruko mikroenpresei eta enpresa txikiei zuzenduta daude.

**Turismoan eta ostalaritzan, 3 modalitate daude**. 1. eta 2. modalitateak **ostalaritzari, jatetxe-arloari eta turismo-intereseko jardueri lotutako establezimendu eta enpresei** zuzenduta daude, eta 5 edo 10 euroko deskontuak izango dira, 20 edo 40 euroko gutxieneko erosketetarako, hurrenez hurren. Hirugarren modalitatean, deskontua 20 eurokoa izango da 60 eurotik gorako erosketetan, **turismoko ostatu-arloko establezimenduetan**. 2 bonu eskuratu ahal izango dira establezimendu bakoitzeko, eta, beraz, pertsona bakoitzak gehienez ere 40 euroko deskontua baliatu ahal izango du guztira.

**“Euskadi Turismo Bonua”** turismoari eta ostalaritzari lotutako Euskadiko mikroenpresei, enpresa txikiei eta ertainei zuzenduta dago. Haien artean, honako hauek aipa daitezke: ostatu-establezimenduak; turismo-gidariak; turismo-zerbitzuen bitartekaritza eta antolaketa turismo-enpresak; jatetxe-arloko eta ostalaritzako establezimenduak, naturako kirol-jardueri lotutako enpresak (hala

nola turismo aktiboari eta abenturakoari lotutakoak); turismo-garraioko enpresak; kultura-ondarea, gastronomia-ondarea eta ondare naturala zabaltzen duten enpresak; eta jolas-zentroak.

Zirkulazioan jarriko diren **966.250 bonuek** (466.250 bonu ostalaritzan eta turismoan, eta 500.000 merkataritzan) **8,7 milioi euro** txertatuko dituzte merkatuan. Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak **2 milioi euroko ekarpena egingo du turismoan, eta 3,7 milioi eurokoa merkataritzan, 5,7 milioi euro guztira**. Beraz, **guztira, 620.000 deskontu-bonu izango dira, 250.000 turismoan eta ostalaritzan, eta 370.000 merkataritzan**.

“Erronka handia izan da Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailarentzat, aurreikusita ez zeuden eta turismoko eta merkataritzako zuzendaritzen aurrekontu osoaren % 18 inguru biltzen duten partidak baitira. Atzo beharrezkoa zena ezinbestekoa da gaur, eta garrantzitsua da administrazioek erantzun eraginkorrak eman ahal izatea”, azaldu du sailburuak.

Sailburuak egungo egoeran ezinbestekoa den erakunde arteko adostasuna azpimarratu nahi izan du. “Funtsezkoak dira hainbat mekanismo, hala nola ABEEEen luzapena (Espainiako Gobernuak atzo bertan onartu zuena) eta urteko 20.000 euroko edo hortik beherako kotizazio-oinarria duten langileentzako ABEEEaren osagarriaren luzapena (lehendakariak Gizarte Elkarrizketarako Mahaiarekin berretsi berri duena). Oso berri onak dira, segurtasun-sare hori gutxienez otsailera arte zabaltzeko aukera emateaz gain ziurtasuna emango baitie enpresa eta pertsona askori krisiaren aurrean. **Eta, are gehiago, lankidetzeta eta baterako ahalegina hain garrantzitsuak diren garai hauetan gizarte-eragileen artean lortutako adostasun baten emaitza izan delako”.**

[www.euskadibonodenda.eus](http://www.euskadibonodenda.eus)

[www.euskaditurismobono.eus](http://www.euskaditurismobono.eus)